

BILBO. Uriburuan ehun etxetik 37tan kontsumitzen dabe dagoeneko gas naturala

Bilbogas enpreseak lau milioi euroko irabaziak izan zituan pasa dan urtean

Bezeroen kopurua igon egin zan arren, igoerea aurreko urtean baino motelagoa izan zan



JON HERNÁEZ/ARGAZKI PRESS

la sei mila bezero lortu zituan igaz Bilbogas enpreseak uriburuko biztanleen artean.

Iñigo Bilbao

Bilbogas enpreseak 4.385.144 euro irabazi zituan igaz, aurreko urtean baino 200.000 euro gehiago. Kopurua 2001. urteko kontuen ganean enpreseak egin dauen kontu-ikuskapenean agertzen da, eta horixe da joan dan asteko eguaztenean Administrazio Kontseiluak egin eban batzarrean aztertu eta onartu eban txostena.

Egun horretan jakin izan zanez, igaz 5.815 bezero lortu zituan Bilbogas enpreseak uriburuko etxebizitza eta merkatarien artean. Horrek esan gura dau, aurreko urtean baino %11,9 bezero gehiago lortu dituela, eta danetara 100 etxebizitzatik 37tan gas naturala kontsumitzen dabela.

Aurreko urtean gertatutakoagaz parekatu ezker, dana dala, igoera horrek behera egin dau, 0,8 puntu. Enpresako arduradunek argi itxi eutsieen Kontseiluko ordezkari, 2000. urtea berezia izan zala, uste baino bezero gehiago lortu ebezelako. «Eskaerea apurka-apurka gitxituz joan zan igaz, urte hasieran, eta bigarren sei hilekoan nabarmenagoa izan zan jaitsiera hori», azaldu eutsieen.

Halandabe, merkatua zelan dagoen ikusita, igaz lortutako irabaziak «onak» izan zirala pentsetan dabe, «onak urteari begira, baina onak baita epe luze begira be», esan eban.

TXOSTENA

Beharginek enpresearen akzinoak erosteko aukerea izango dabe

Beharginek Bilbogas enpresako akzinoak erosteko aukerea izango dabe. Naturcop Multiservicios enpresearen sorreragaz batera, 32.102,12 euroko diru kopurua gorde dabe enpresako arduradunek, gura daben behargin guztiek erosi daiezan. Igazko martiaren 30ean hartu eban horren ganeke erabagia, eta aitatutako kopurua beharginen urteko soldata gordinen %3,5ekoa da. Enpresearen txostenetan soldata zehazten diran kapituluak agertzen dirala azpimarratu dabe arduradunek.

Aitamen bitxi lez, txostenean aitortzen da, Manuel Urkixo kontseiluko kidearen ustez, Bilbogas enpreseak irratietan zabalduetako iragarkiak «zentsutasunaren kontrako eraso» izan zirala. Enpreseak erantzuten deitso hori izan dala iragarkien ganean jaso daben kritika bakarra.

IGAZKO EMAITZAK

5.815 bezero barri lortu zituan Bilbogas enpreseak uriburuko etxebizitza eta merkatarien artean

Epe laburrera emaitzak onak izan zirala ganeratu eban, batz besteko igoerea penintsulako beste lurraldeetan baino handiagoa izan zalako; eta epe luze, barriz, enpresea sortu zanezik, orain 7 urtetik, goruntz egin daelako urtero merkatuaren okupazioak. Ez hori bakarrik. Inbertsinoa Espainiako estatuko beste enpresek egin da-

SAREA

Horniketa sarea 7 kilometro luzatu dabe, eta ondorioz, gaur egun sarea 267 kilometrokoa da

beno baino txikiagoa izan dan arren (%9,1 euren batenaz besteko %121,7 besteko), irabaziak handiagoak izan diralako.

Txostenean esaten denez, gainera, enpresearen gainbalio gordinak goruntzko joereagaz jarraitu eban igaz be, kopurua sei milioi eurotik gora ipini arte, aurreko urtean baino %21,3 gehiago. Horrezaz ganera,

KRITIKEA

Batasunak aurrera jarraitzen dau salaketeagaz

Bilbogas enpreseak alta emoteagaitik eta instalazioak ikuskatzeagaitik bezeroei kobretan deitzen tasearen inguruko tirabireak bordin-bordin jarraitzen dau. Dabi Alonso Batasunak Administrazio Kontseiluan daukan ordezkariak gutun baten gogoratu dauenez, aurrera segitzen dau horren kontra EA-Eko Auzitegi Nagusian orain urte bi ipinitako salaketeak.


Alonsok ezin izan eban eguazteneko batzarrera joan, beste batzar bat eukalako, baina gutun bidez jakin eragin eutsen enpresako arduradunei berak ez zituala sinatuko 2001. urteko kontuak. Batetik, ez daelako aintzat hartzen konpainiak urteotan garatu dauen gestioa, eta, bestetik, ez daelako ontzat hartzen hainbat zerbitzuren pribatizazioa.

maiatzean konponketa zerbitzu ipini eban martxan, eta eraginkortasun komertziala bikaina izan dala nabarmen izan dau txostenak: igaz orduko 1.768 kilowatt fakturau ebezan sareak daukan metro bakotzeko.

Horniketa sareari jagokonez, zazpi kilometro luzatu dabela argitzen dau txostenak, eta ondorioz, gaur egun sarea 267 kilometrokoa dala. Horrek irabazietan izango dauen eragina, dana dala, txikia izango dala aitortzen dabe, merkatua dagoeneko beteta dagoelako. Sarearen barruan 143.000 etxebizitza dagoz, gitxi gorabehera. Datuokin, metro bakotxaren eraginkortasun tekniko etxebizitza bakotzeko 5,04 metro dirala zehazten dau txosten horrek.

Amaitzeko, enpresearen irabaziak igaz zenbatekoak izan ziran esaten da, eta, horren arabera, ustiapenaren emaitza gordin bost milioi euro eta erdikoa izan zala argitzen dau kontu-ikuspenaren txostenak, aurreko urtean baino %25 handiagoa. Zergak ordaindu barik igoerea %18,2koa izan zan, eta ordaindu ostean barriz, %5,26koa.

LABURRAN



EGUNKARIA
Jose Maria Gorordo

BILBO

Gorordok hilaren 8ko udalbatzarrean itxiko dau zinegotzi kargua

Jose Maria Gorordo ICVko bozeroaleak zinegotzi kargua itxi egingo dau datorren astean. Udaleko arautegiak horrela eskatuta, udalbatzarrik aparteko batzarra egin beharko dau kargu iztea onartzeko eta Gorordoren ordezkari atea zabaltzeko. Izan be, Ainhoa Gorordok beteko dau, hilaren amaieran egingo dan ohiko udalbatzarrean, bere aitak itxiko dauen hutsunea. Jakina denez, Gorordok agintari jeltzaleekin berbatu eban EAEko Kontuen Herri Epaitegian kargua, eta hori beteteko itxiko dau Udala.

Igaz, 33 emakumek 18 enpresa sortu zituen uriburuan

Bilbon 18 enpresa sortu zituen igaz 33 emakumek Lan Ekintza programearen barruan. XXI. mendeko andra sortzaileen ganeke egitarauak emondako laguntasunaren bitartez sortu ditue enpresok. Batez be, 30 urte baino gehiago daukiz emakumeentzat gertatutako egitaraua da.

ZIERBENA

Arena auzuneko zerbitzuak barritu egingo ditue

Zierbanan, Arena auzunean zerbitzuak hobetu edo barritu egingo dituela esan dau Iñigo Loyola Ortuzar alkateak. Hasteko, frontoi ingurua konponduko dabe, urbanizatu egingo dabe; izan be, 15.000 pertsona baino gehiago joaten dira hara astebururako edo jaiegunetan. Hondartza ondoko aparkalekua, hondartzarako sarreak, duxak eta oinak garbitzeko iturriak be barrituko ditue. Aldundia arduratuko da horretaz. Gaur egun, 300 lagun baino gehiago bizi dira Arenan.